


"Mujeres guatemaltecas que reclaman Justicia: La Búsqueda"

Cristina Chiquin, fotoperiodista guatemalteca

Dosier de Fotos



1. Vigilia para recibir a las víctimas de una masacre realizada en 1982 por el Ejército de Guatemala en la comunidad de Estrella Polar, Nebaj, Chajul. 26 de Marzo 2015
 1. 1982. urtean Guatemalako armadak Estrella Polar izeneko komunitatean (Nebaj eta Chajul udalerrietan) egin zuen sarraskiaren biktimak jasotzeko esna-aldea.



2. Engracia Reina Mendoza sostiene la fotografía de su hermano que fue asesinado en una masacre por parte del Ejercito de Guatemala en Chajul, Quiché, 1982. A la edad de siete años ella tuvo que huir por ser víctima de violencia sexual por parte del Ejército. Actualmente es presidenta del Comité de Víctimas de la Guerra de su comunidad. Febrero 2016

2. Engracia Reina Mendozak nebaren argazkia eusten du, 1982. urtean Guatemalako armadak Chajul udalerrian (Quiché) egindako sarraskian erail zutena. Engraciak 7 urte zituela alde egin behar izan zuen, sexu-indarkeria gauzatu baitzion armadak. Gaur egun, bere komunitateko Gerrako Biktimen Batzordeko presidentea da.



3. El pueblo Ixil realiza un acto en conmemoración de las víctimas del genocidio en la Plaza de Nebaj Quiché, luego de que un Tribunal declarara culpable al Exdictador Efraín Ríos Montt. Junio de 2013.

3. Ixil herriak ekitaldi bat antolatzen du Nebajeko (Quiché) plazan egindako genozidioaren biktimak oroitze aldera, auzitegiak Efraín Ríos Montt diktadore ohia errudun deklaratu ondoren. 2013ko ekaina.




4. Teodoro Méndez víctima del Ejército de Guatemala en Sacualpa Quiché en 1983 es recordado por su esposa e hijos durante una manifestación de víctimas de la Guerra en el país. En los años 80 se dieron muchas de las violaciones a Derechos Humanos en contra de población civil a manos del Ejército de Guatemala. 25 de Febrero de 2016.

4. Teodoro Méndez —1983. urtean Guatemalako armadak Zacualpan (Quiché) eragindako biktima— oroitzen dute bere emazteak eta seme-alabek, herrialdeko gerrako biktimen alde egindako manifestazioan. Guatemalako armadak zibilen giza eskubideak sarri urratu zituen 80ko hamarkadan. 2016ko otsailaren 25a.



5. Natalia Gálvez Soberanís toca la foto de su hijo Carlos Ramírez Gálvez de 19 años que fue detenido y desparecido por el Estado de Guatemala el 14 de Febrero de 1984. Ciudad de Guatemala, Agosto del 2014.

5. Natalia Gálvez Soberanísek 19 urteko Carlos Ramírez Gálvez semearen argazkia ukitzen du, 1984ko otsailaren 14an Guatemalako armadak atxilotu eta desagerrarazi zuena. Guatemalako Hiria, 2014ko abuztua.



6. Mujer maya ixil observa el cielo, mientras recuerda lo ocurrido en su comunidad donde su familia fue víctima de la violencia de Estado durante el conflicto armado en los años 80. Nebaj Quiché, Mayo 2014.

6. Ixil etniako emakume maia, bere komunitatean gertatutakoa oroitzen duen bitartean; bere familia estatuaren indarkeriaren biktiman izan zen 80ko hamarkadan egondako gatazka armatuan. Nebaj (Quiché), 2014ko maiatza.



7. Una mujer ixil, llora al enterrar a su esposo 33 años después de que fuera masacrado por el Ejército de Guatemala en la comunidad Estrella Polar en 1982. Quiché Marzo 2015.

7. Ixil emakume bat negarrez senarra hobiratzen, Guatemalako armadak Estrella Polar komunitatean 1982. urtean hura sarraskitu ostean. Quiché, 2015eko martxoa.



8. Varias mujeres ixiles entierran a un miembro de su familia que fue masacrado por el Ejército de Guatemala en el año 1982 en la comunidad Estrella Polar Quiché.
Marzo 2015.

8. Ixil etniako hainbat emakumek euren familiako kide bat hobiratzen, Guatemalako armadak 1982an Estrella Polar komunitatean (Quiché) sarraskitu zuena. 2015eko martxoan.



9. María Luisa Col una mujer q`eqchí llora en el féretro que contiene algunos restos óseos de su esposo que fue detenido ilegalmente por el Ejército el 13 de Enero de 1982 y sus restos fueron encontrados casi 30 años después en el destacamento militar de Creompaz en Alta Verapaz Cobán y fue entregado a su familia el 17 de Junio de 2016.

9. María Luisa Col, q'eqchi' etniako emakumea, negarrez bere senarraren hezurrak dauzkan hilkutxaren gainean. Armadak legez kanpo atxilotu zuen senarra 1982ko urtarrilaren 13an; ia 30 urte ondoren Creompaz destakamentu militarrak bere gorputzkiak aurkitu zituen Alta Verapaz departamenduko Cobán hirian, eta familiari eman zizkieten 2016ko ekainaren 17an.



10. Juana Camey sostiene la foto de su esposo Moisés Saravia López desaparecido y ejecutado por el Ejército de Guatemala el 11 de Marzo de 1984, después de 32 años de búsqueda lograron sepultarlo dignamente. Moisés es parte de las 183 personas detenidas y desaparecidas forzosamente por el Estado de Guatemala que aparecen en el Diario Militar. Abril 2016

10. Juana Cameyk Moisés Saravia López senarraren argazkia eusten du, 1984ko martxoaren 11n Guatemalako armadak desagerrarazi eta hil zuena. 32 urtez bere bila egon ostean, duntasunez hilobiratzea lortu zuten. Moisés "Diario Militar" zerrendan agertzen direnetariko bat da, zeinetan Guatemalako estatuak atxilotu eta derrigorrean desagerrarazi zituen 183 pertsonak jaso diren.



11. Emma Molina Theissen llora al terminar la audiencia en donde se apertura el Juicio contra cinco altos mandos del Ejército acusados de la desaparición forzada de su hijo de 14 años Marco Antonio Molina Theissen y la detención y violación sexual de su hija en el año de 1981. Marzo 2017

11. Emma Molina Theissenek negar egiten du armadako bost goi-agintariren aurkako epaiketa irekitzeko entzunaldia amaitzean, 1981. urtean bere 14 urteko Marco Antonio Molina Theissen semea desagerrazteaz eta bere alaba atxilotu eta sexualki bortxatzeaz akusatutakoak.



12. Mujeres ixiles sometidas a revisión en la entrada de una audiencia en un Tribunal guatemalteco en donde se juzgaron las violaciones cometidas contra la población ixil por parte del Ejército de Guatemala en los años 80. Mayo2013 2013

12. Ixil etniako emakumeak erregistratzen ari dituzte Guatemalako auzitegi baten entzunaldira sartzeko; bertan, Guatemalako armadak 80ko amarkadan Ixil herriaren aurka egindako bortxaketak epaitu ziren. 2013ko maiatza.




13. Mujeres mayas ixiles, a la salida del Palacio de Justicia en Ciudad de Guatemala, luego de que un Tribunal condenara al exdictador Efraín Ríos Montt a 80 años de prisión por el genocidio cometido contra el Pueblo Ixil en los años 80 durante la guerra interna. 10 de Mayo 2013, Ciudad de Guatemala.

13. Ixil etniako emakume maiak Guatemalako Hiriko justizia-jauregitik irteten, auzitegiak Efraín Ríos Montt diktadore ohia kartzelan 80 urtez egotera kondenatu ostean 80ko hamarkadan egon zen barne-gerran Ixil herriaren aurka egindako genozidioagatik. Guatemalako Hiria, maiatzak 10.



14. Mujeres mayas ixiles, observan un acto en Nebaj durante la conmemoración del 1º Año de sentencia por genocidio de Efraín Ríos Montt. 10 de Mayo de 2014.

14. Ixil etniako emakume maiak Nebaj udalerrian Efraín Ríos Montt genozidioagatik epaitu osteko 1. urtea oroitzeko xedez egindako ekitaldi bati begira. 2014ko maiatzak 10.



15. El juicio del Caso Sepur Zarco se llevó acabó en febrero de 2016 en Ciudad de Guatemala , en donde se juzgó a militares por haber esclavizado domesticado y sexualmente a mujeres 'qeqchís.

15. Sepur Zarco kasuaren epaiketa 2016ko otsailean egin zen Guatemalako Hirian; bertan, militarrak epaitu zituzten q'eqchi' etniako emakumeak etxeko esklabo zein sexu-esklabo bihurtzeagatik.



16. Una mujer maya q'eqchí arregla el manto que cubre su rostro durante una audiencia de reparación, después de que un Tribunal guatemalteco encontrara culpables al exteniente Stelmer Reyes Girón y al subcomisionado militar Heriberto Valdez, por ejercer violencia y esclavitud doméstica y sexual hacia las mujeres q'eqchies de la comunidad Sepur Zarco, en los años 1980 y 1981, donde estaba ubicado el destacamento militar. Ciudad de Guatemala, 2016

16. Q'eqchi' etniako emakume batek bere aurpegia estaltzen duen mantua ondo jartzen biktimak babesteko entzunaldi batean, Guatemalako auzitegiak Stelmer Reyes Girón teniente ohia eta Heriberto Valdez azpikomisario militarra errudun deklaratu ostean; 1980. eta 1981. urteetan, Sepur Zarco komunitatean zegoen destakamentu militarrean, q'eqchi' emakumeekin etxe- zein sexu-esklabotza eta indarkeria gauzatzeagatik kondenatu zituzten. Guatemalako Hiria, 2016.



17. Una mujer narra las violaciones vividas en el destacamento militar, ubicado en la comunidad Sepur Zarco, donde fue sometida a exclavitud y violencia sexual en los años 1980 y 1981. Ciudad de Guatemala , 2016.

17. Emakume batek Sepur Zarco komunitatean zegoen destakamentu militarrean jasandako bortxaketak azaltzen ditu; bertan, sexu-esklabotza eta -indarkeria jasan zituen 1980. eta 1981. urteetan. Guatemalako Hiria, 2016.



18. Una mujer se asombra y celebra la sentencia del Caso Sepur Zarco en donde se condenó a los cargos militares por los delitos de exclavitud doméstica y sexual. Ciudad de Guatemala, 2016.

18. Emakume batek, harriturik, Sepur Zarco kasuko epaia ospatzen du; horren bidez, kargu militarrak kondenatu zitzuten etxe- zein sexu-esklabotza gauzatzeagatiko delituengatik. Guatemalako Hiria, 2016.



19. Mujeres mayas q'eqchís celebran que un Tribunal guatemalteco reconociera la violencia y esclavitud doméstica y sexual que ellas y otras mujeres sufrieron por el Ejército de Guatemala en comunidades de Alta Verapaz y el Estor Izabal. Ciudad de Guatemala, Febrero 2016.

19. Q'eqchi' etniako emakume maiek ospatzen dute Guatemalako auzitegi batek onartu izana Verapaz eta Estor Izabal komunitateetan eurek eta beste emakume batzuek Guatemalako armadaren eskutik jasandako etxe- zein sexu-esklabotza eta indarkeria. Guatemalako Hiria, 2016ko otsaila.



20. Una mujer llora en el entierro de una de las 56 niñas que fueron encerradas y quemadas en un Hogar Seguro estatal “Virgen de la Asunción” el 8 de marzo de 2017 luego de que las niñas denunciaran abusos y violencia sexual vivida en el centro.

20. Emakume bat negarrez, 2017ko martxoaren 8an Virgen de la Asunción izeneko umezurtz-etxean giltzaperatu eta erre zituzten 56 nesken hiletan; gertakari horren aurretik neskek salatu zuten sexu-indarkeria eta erasoak jaso zituztela zentro horretan.



21. Mujeres sostienen cruces con los nombres de diversas mujeres víctimas de femicidios , durante la marcha conmemorativa en contra de la violencia hacia la mujer en Ciudad de Guatemala, donde se registra una tasa promedio de 600 mujeres asesinadas cada año. 25 de Noviembre de 2016.